

# IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

## 1. QR1, Kanpoan, atarian. Baserriaren aurkezpena

Kaixo!

Igartubeiti dolare baserrian zaude. 90. hamarkadan, iraganean zuen itxura eman ez, berreraikitako baserri paregabea.

Baserria 1540. urtean eraikia izan zen eta Ezkioko familia bat bertan bizi izan zen 1993. urterarte.

Baserriko arkitektura garai bakoitzeko beharren arabera eraldatzen joan zen. Sarreratik garbi ikus daitezkeen ataria eta bi aldamenetara eginiko harrizko zabalkuntzak XVII. mendekoak dira, hauek, artoa lehortzeko eta ganadua barruan izateko beharrak asetzeko eginak izan ziren. Izan ere, familiako ekonomian oinarritutako landa inguruko etxe hauek, naturaren eta kulturaren arteko harreman zubiak izan dira. Ez bait ditu aldaketak baserriko egiturari soilik jasan, ingurua ere momentuko beharren arabera egokitzen joan da.

Baserrian bizi izan diren eta oraindik ere bizi den pertsona bakoitzak, bere lanaren bitartez paisaia humanizatu du, inguratzen gaituen guztiari forma eta zentzua emanaz.

Izan ere, ingurune honek funtzio zehatz bat betetzen du baserrian (basoak, baratza eta inguruko zuhaixkak, laborantza, larre eta abereak) guztia ekosistema baten parte da eta gaur egun indarrean jarraitzen duten balio kultural batzuei erantzuten die. Izan ere, baserriak une bakoitzera egokitzen eta berrinterpretatzen jakin du. Ziur Igartubeitira eginiko bisita honetan zure egunerokotasunaren zati den bitxikeriaren bat aurkituko duzula.

Sartu aurretik, sarrerako atean, eguzkiloa ikusiko duzu. Sinesmenek garrantzi handia zuten garai hartan eta Eguzkiloa Baserria eta familia babesteko erabiltzen zen objektuetako bat zen.

Aurrera, sartu, baina kontuz zoruarekin, nahiko irregularra baita. Entzuten jarraitu ahal izateko sartu eta eskubitara joanda dagoen baserriko sukaldean topatuko duzun QR kodea eskaneatu eta baserrian nola bizi ziren kontatuko dizut.

## 2. QR2. Behe solairua. Baserriaren barnealdean

Baserriaren barnealdean zaude, beheko solairua animalien eta familiaren artean partekatutako biztokia zen. Sukaldea, familiaren topalekua izaten zen, non ahozko transmisioak pisu handia izan duen beti, egontokia erosoagoa izan zedin, animalien beroa aprobetxatzen zuten ikuilura ematen duten bi leihatilen bitartez.

Sukaldeko zoruan, pertza azpian, harriak dauden tokian sua egiten zuten. Baina ingurura begiratzuz gero konturatuko zara ez zutela tximiniarik. Hori dela eta ahal beste aprobetxatzen zuten etxe barruan geratzen zen kea. Janaria keetzeko aprobetxatzen zuten, gainera egurra babesten ere laguntzen zuten, lehortuta hobeto kontserbatzen baita. Noski, kea paretako zulotxoetatik ere irteten zen, baina zulo berdinetatik airea ere sartzen zen eta korronteak sortzen zituen. Haize korronte horietatik babesteko zizeilua erabiltzen zuten. jarleku altu honek bizkarra eta lepoa babesten zizkien. Zizeilua, gainontzeko mahai eta jarlekuen moduan, nahiko baxua zen, kea goruntz joaten denez, beherago eserita hobeto arnastu ahal izaten zutelako.

Bide batez, sukalde ondoan dagoen atetik begiratzen baduzu XVII. mendeko logela ikus ahal izago duzu, garai hartan hiru logela eraiki ziren, baina guztietan onena sukalde ondokoa zen, beroen mantentzen zena baitzen.

Beste atetik igarota, janaria kontserbatzeko gazikutxa zuten gela topatzen dugu. Telarea ere bazuten, honela, familiak behar zituen arropa eta oihal guztiak etxean egin ahal izateko. Gaztaren txokoa ere bertan dugu, txintxilikatutako apal bat du bertan gaztak lehortu eta xaguak bertara iristea saihesteko. Funtzio hauek guztiak zabalkuntzaren ondorio dira, ordurarte, hau da, XVI. mendean zehar garaiko familiaren logela zen.

Goiko solairuan, eskaileraren gainekaldean dagoen zutabeen topatuko duzu hurrengo QR kodea.

### 3. QR3, Lehen solairua. Baserriaren lanak

Lehen solairuan zaude, baserriko lan ezberdinei zuzendutako espazioan. Etxebizitza hauetan euren burua hornitzen saiatzen ziren eta gune ezberdinetan artisau lanak burutzen ziren. Solairu honetan lehortegiei zuzendutako guneak, eztiaren produkzioari zuzendutako erlauntzak eta aroztegia ikusiko duzue.

Baina zalantzarik gabe, solairu honetako pieza nagusia etxearen erdigunea hartzen duen dolarea da. Ondoren sagardo bilakatzen zen sagar zukua egiteko urtero martxan jartzen zen tresna handia. Hurrengo QR kodean dolarea martxan ikus dezakezue.

Sagarra erdian pilatzen zen eta egurrezko pisoien laguntzaz jotzen zen. Behin sagarra ondo jotakoan, egurrezko piramidea eraikitzen zen horren gainean dolarearen erdigunean eta habe nagusia mugitzen hasten ziren. Poliki-poliki, habea josten joaten zen sagarra prentsaturik eta honela ondoren barriketan irakinda sagardo bilakatuko zen zukua lortuz.

XVII. mendean etxea handitzearen arrazoi nagusietako bat bigarren solairuan kokatuta dagoen arto lehortegia eraikitzea izan zen. Zereal hau XVI. mendean ekarri zuten baina beste mende bat behar izan zuten eskaintzen zituen aukerak ezagutu eta hobeto aprobetxatu ahal izateko. Prozesu horretan, artoa lantzeko toki egoki bat izate aldera, etxeak handitu zituzten. Igartubeiti, egokitzen hori egin zuen lehenengo baserrietako bat izan zen eta zuloz betetako aurrealdea egin zioten, artoa ondo sekatzeko leku aireztatu bat izateko. Artoarekin erlazionatuta, mahai baten itxura duen Astoa izeneko pieza daukagu, artoari hostoak kendu eta lehortu ondoren, astoan jartzen zuten eta mazo moduko batekin artoa aletzen joaten ziren aleak azpian dituen zulotxoetatik erortzea eginez.

Igartubeiti Baserri Museoa

+34 943 72 29 78 /+ 34 943 72 51 07

igartubeiti@gipuzkoa.eus

[Igartubeiti Baserri museoaren webgunea](#)



CASERÍO MUSEO  
IGARTUBEITI  
BASERRI MUSEOA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro